

Jump nazioarteko diseinu lehiaketa

2007/05/24

Fagorrek eta Mondragon Unibertsitateak Jump nazioarteko diseinu lehiaketaren 1. Edizioa antolatu dute



Diseinu industrialia sustatu eta etxetresna elektrikoaren arloan egiten diren lan berritzaileenak saritzeko, Fagorrek eta Mondragon Unibertsitateak, Eusko Jaurlaritzarekin eta b.a.i. Berrikuntza Agentziarekin elkarlanean, **JUMP FAGOR DESIGN AWARDS Nazioarteko Diseinu Lehiaketa lehenengo edizioa** antolatu dute.

Oso-osorik Internet bidez garatuko den lehiaketa honek 3 lan **berritzaileenak** eta orijinalenak sarituko ditu **3.000**na euroekin eta 8 aipamen berezi ere izango dira. Munduko edozein unibertsitateko diseinu industrialeko eta arkitekturako ikasleei eta diseinatzaile gazteei dago bideratua.

Berritu erosoago bizitzeko

Sasoi berriek gero eta azkarrago bizi arazten gaituzte, etxebizitzak txikiagoak dira, denbora gutxiago dugu etxeko lanetarako, ohiturak aldatuz doaz eta behar berriak sortzen ari dira. Behar berri hauei berrikuntzak eta diseinuak erantzun behar die: produktu ergonomikoagoak eta nanoteknologia, domotika eta material berriekin egindako erabilera berrietarako etxetresna elektrikoak. Fagorrek, bere etengabeko berrikuntzaren estrategian, etxetresna elektrikoaren berrikuntza eta diseinuaren alde egin du apustu, gure bizimodua etxean errazagoa, erosoagoa eta samurragoa izan dadin.

Epaimahaia esperientziadun profesionalak osatuko dute

Epaimahaiaren buru **Juli Capella**, Bartzelonako arkitekto eta diseinatzaile ospetsua izango da eta berarekin batera izango dira **Matali Crasset** diseinatzaile frantziarra, Fagor Etxetresna Elektrikoak-eko Marketin eta Berrikuntza sailerako ordezkariak (**Xabi Gorritxategi** Berrikuntzako Zuzendaria eta **Iñaki Goikoetxea** Marketin Estrategikoko Zuzendaria) eta **Nagore Lauroba** eta **Jon Santacoloma**, Mondragon Unibertsitateko irakasleak. Guztiak prestigio handiko profesionalak

Sarea bitarteko

Izen-ematea **on-line** egingo da martxotik maiatzera bitartean eta lanak ekainaren 30era bitartean hartuko dira. Irailean izango dugu epaimahaiaren erabakiaren berri eta sari-emate "birtuala" ere irailean izango da; gainera, lanak ikusgai izango ditugu, birtualki hauek ere. Izan ere, lehiaketaren berezitasunetariko bat da bere izaera birtuala, prozesu osoa, izen-ematek hasi eta sari-emate eta lanen erakusketaraino, www.fagorjump.com/ Webgunearen bitartez egingo baita. Webgune honetan aurkituko dugu lehiaketaren inguruko informazio guztia.